



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 25a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Osasun eta Eskubide Sozietako departamentuak premiatzen dira batera lan egin dezaten, toki entitateekin lankidetzan estuan, auzoetan eta herrietan pertsona zaharren aldeko itunak bultzatzeko eta garatzeko. Eskubide Sozietako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Helduen Hezkuntzarako plan estrategiko bat landu eta ezar dezan. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan enpresetan jasangarritasun-irizpideak barneratzea. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2109/2012 Ebazpena bertan behera utz dezan eta langileen ordezkariekin ordezko ebazpen bat negoziatzea. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da an egin dezan Nafarroako Errepide Sarean inbertitzearen eta sarearen mantentze-lanen aldeko Nafarroako ituna lortzeko. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da tokiko eskolatzeko batzordeen osaketa, antolaketa eta eginkizunak alda ditzan. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionalari, haien Polizia Merituaren Ordenan sartuz eta haien bereizgarri espezifiko bat sortuz. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar bezala arautu eta planifika dezan gure erkidegoko garapen berriztagarria. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (11. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Arizkun herriko seinaleetan legea betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Espainiako Itzuliaren balantze ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, Pfizerren txertoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak emandako abal kobraezinen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planeko gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomiako ministro Nadia Calviñoren hitzaldian NUPeko ikasleek parte hartzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Ceutatik datozen eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren harrerari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (20. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Osasun eta Eskubide Sozialetako departamentuak premiatzen dira batera lan egin dezaten, toki entitateekin lankidetzan estuan, auzoetan eta herrietan pertsona zaharren aldeko itunak bultzatzeko eta garatzeko.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2021eko maiatzaren 19an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun eta Eskubide Sozialetako departamentuak premiatzen dira batera lan egin dezaten, toki entitateekin lankidetzan estuan, auzoetan eta herrietan pertsona zaharren aldeko itunak bultzatzeko eta garatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak honako hauetara premiatzen du Nafarroako Gobernua:

– Osasun eta Eskubide Sozialetako departamentuek batera lan egin dezaten, toki entitateekin lankidetzan estuan, beste auzo eta herri batzuetan pertsona zaharren aldeko itunak bultzatzeko eta garatzeko.

– Baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak erraztu ditzan, proiektu hori handitu eta indartu ahal izateko; horrekin lortu nahi da programa gehiago eskaini eta Donibane auzoko adineko pertsona gehiagorengana iritsi ahal izatea”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Helduen Hezkuntzarako plan estrategiko bat landu eta ezar dezan.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Helduen Hezkuntzarako plan estrategiko bat landu eta ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Helduen Hezkuntzarako plan estrategiko bat landu eta ezar dezan, oinarri hartuta bizitza osoan garatzen den etengabeko ikaskuntza, lan merkatuaren beharrianak, emaitzen monitorizazio sistematikoa eta ELGAK eta Europako Kontseiluak emandako gainerako gomendioak.

Zioen azalpena

Helduen hezkuntza da Europar Batasuneko herrialde kideen hezkuntza-sistemen eta ekonomien erronka handietako bat. Hezkuntzaren paradigma zaharraren ondotik, zeinaren bidez norbanakoek beren prestakuntza aldia gaztaroko lehenbiziko urteetan osatzen baitzuten eta beren bizitzan prestakuntza gehiagorik gutxitan jasotzen baitzuten, bestelako eredu bat etorri da, zeinetan, berrikuntza teknologikoak eta ekonomiaren eta lan merkatuaren etengabeko aldakuntzak direla-eta, pertsonak prestakuntza jasotzeko beharra izaten duten beren lan bizitza osoan.

Edonola ere, zenbait ikerketa bat datoz esaterakoan Espainian eta ELGAKo gainerako herrialdeetan arazo bat dagoela, eta da helduen ehuneko txiki batek besterik ez duela egiten prestakuntza-jarduera esanguratsurik lan merkatuan sartu ostean. Gainera, pertsona askok lanirteera eskaseko alorretako prestakuntza du, eta beste batzuek goiz utzi dute hezkuntza-sistema. Arazo hori bereziki ohikoa da Espainian. Horrek guztiak eragina du bai pertsona horien gizarte- eta lan-egoeran, arazo handiak baitituzte lanpostu on bat aurkitzeko, bai ekonomiaren sasoian ere, beharriaz egokitutako eskulan eskasiaren zama pairatu behar baitu.

2020an, prestakuntza mota hori nabarmen bultzatua zen sei herrialdetan helduen prestakuntzari buruzko azterketa bat egin ondoren, ELGAK zenbait gomendio argitaratu zituen bizitza osoan garatzen den etengabeko ikaskuntza sustatzeko. Horien artean zeuden norberaren garapena eta garapen soziala erdigunean jartzen dituen

ikaskuntza sustatzea; informazio aktiborako politika publiko bat ezartzea, langile-talde bakoitzerako berriazkoa eta dauden prestakuntza-aukerari buruzko eduki eskuragarriekin; hezkuntza- eta lan-aukera berriak bultzatzea pertsonen bizitza osoan zehar; sormena eta espiritu ekintzailea garatzea; prestakuntza politiken ebaluazio etengabea eta lan merkatuari benetan egokitzen ote zaizkion monitorizatzea; interesdunei eta eragile ekonomiko eta sozialei kontsulta egitea programen diseinu eta bilakaerari buruz; eta, noski, finantzaketa egoki eta iraunkorra.

Halaber, 2016an Europar Batasuneko Kontseiluak 2016/C 484/01 Gomendioa onetsi zuen, kide diren herrialdeetan helduentzako prestakuntza aukera berriak sortzeari buruzkoa. Dokumentu horrek aurreikusten zuen oinarritzko izaera duten lanpostuak murriztu egingen direla laster, eta nabarmentzen zuen irakurketa-idazketako gaitasunak eta gaitasun aritmetiko eta digital nahikoak izateak duen garrantzia garapen pertsonal eta profesionalerako. Era berean, gaitasunak hobetzeko helduentzako ibilbideak sortzea gomendatzen zuen, horretarako aintzat hartuta generoa, aniztasuna, eta prestakuntza beharrian desberdinak dituzten zenbait azpitalde daudela helduen artean.

Helduentzako prestakuntza-estrategia eragin-korra abian jartzeak, Europar Batasunak berak zenbaitetan azpimarratu duenez, funtsezko garrantzia du aukera berdintasun handiagoa lortzeko, gizarte-kohesioa areagotzeko eta Batasuna osatzen duten pertsonen eta lurraldeen etorkizun ekonomikoa ziurtatzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Helduen Hezkuntzarako plan estrategiko bat landu eta ezar dezan, oinarri hartuta bizitza osoan garatzen den etengabeko ikaskuntza, lan merkatuaren beharrianak, gaitasunak hobetzeko helduentzako ibilbideak sortzea, emaitzen monitorizazio sistematikoa eta ELGAK eta Europako Kontseiluak emandako gainerako gomendioak.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da susta dezan enpresetan jasangarritasun-irizpideak barneratzea.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS-AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita susta dezan enpresetan jasangarritasun-irizpideak barneratzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, premiatzen dute enpresetan jasangarritasun-irizpideak barneratzea sustatzera.

2015ean, Nazio Batuen Batzar Nagusia osatzen duten 193 estatuak aho batez adostu zuten Garapen Jasangarrirako Agenda, 17 helbururekin. Helburu horiek erantzun onena dira gaur egun munduan dauden erronka handietarako; izan ere, planetaren oreka ekologikoa berrezartzea eta gizarte-erronka premia-koenei aurre egitea proposatzen da, hala nola pobrezia-amaiera ematea, desberdintasunak murriztea eta herritarren bizi-baldintzak hobetzea.

Eta krisi pandemikoaren ez-tandarekin ideia alde batera utzi beharrean, EBk bere gain hartu zuen susperraldiaren Europako estrategiari ekiteko erabakia, garapen jasangarria ardatz hartuta, beharrezko eraldaketa ekologiko eta digitalen eta ezinbesteko gizarte- eta lurralde-koehesioaren arteko orekari eutsiz, eta, ondorioz, horri buruzko

funtsak zuzenduz, GJHak uko egin ezineko bete-beharra baitira.

Izan ere, pandemiaren aurretik gobernu gehienak beren politikak, araudia eta programak birdefinitzen ari baziren ere, Garapen Jasangarriko Helburuen gizarte- eta ingurumen-beharrei erantzuten saiatzeko, gogorarazi behar da 2030 Agenda ez dela gobernuentzako proposamen bat soilik, gizarte osoarentzako proposamen bat baizik, bai administrazioentzat eta eragile ekonomiko zein sozialentzat, bai herritarrentzat oro har, eta enpresa-lidergo ezinbestekoa da helburu horiek lortzeko.

Enpresek funtsezko zeregina izan behar dute ezarri dugun gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunean, eta lidergo hori gertatuko da soilik enpresa-ehun osoak bere gain hartzen badu erronka hori, eta haien inplikazioa orain inoiz baino gehiago ezinbestekoa da 2030 Agendaren erronka bizkortzeko.

Nafarroan, enpresa txiki eta ertainek enpresa-ehunaren % 95 egiten dute, eta gaur egun, nahiz eta enpresa-ehuna dagoeneko mobilizatzen ari den GJHak ezartzeko, helburu horiek betetzetik urrun egoteaz gain, enpresa horietako batzuk ez dira haien garrantziaz jabetzen, edo ez dakite GJHetara egokitzeak zer onurak dakartzan.

Eginkizun hori betetzeko, Nafarroako Gobernuak Sodena erabil dezake, enpresa-proiektuak erakartzeko eta garatzeko tresna gisa. Proiektu horiei finantza-laguntza ematen die, kapitalean, mailegutan, abailtan eta abarretan parte hartuz.

Horregatik, GJHen betearazpenean aurrera egiteko, beharrezko eraldaketa sozial eta ekologikoan, eta jasangarritasuna enpresen negozio-estrategiaren bizkarrezurra izan dadin, beharrezkotzat jotzen dugu Nafarroako Gobernuak susta dezala jasangarritasun-irizpideak – sozialak, ingurumenekoak eta gobernantzakoak – enpresa-ehunean txertatzea. Hori guztia dela-eta, behean sinatzen duten talde parlamentarioek honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du, susta dezan gizarte-, ingurumen- eta gobernantza-irizpideak txertatzea enpresen kudeaketan, Sodena-ren bidez finantza-

laguntza emanez, eta kontuan har dezan hurrengo jardueretan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sentsibilizazio-ekintzak bultzatzen enpresetan jasangarritasun-irizpideak sartzea sustatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzen, kontsumoaren arloan jasangarritasun-irizpideak kontuan hartzeko.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 18an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Mikel Asiain Torres eta Mikel Buil García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2109/2012 Ebazpena bertan behera utz dezan eta langileen ordezkariekin ordezeko ebazpen bat negoziatzen.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2109/2012 Ebazpena bertan behera utz dezan eta langileen ordezkariekin ordezeko ebazpen bat negoziatzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Maiatzaren 18an Hezkuntza Laguntzako Espezialisten Talde Eragilearekin eginiko lan-bileran, langile horiek azaldu zuten 2012ko murrizketak atzera bota beharra zegoela, eta 2109/2012 Ebazpena aldatu, zeinak arautzen baitu Hezkuntza Departamentuko hezkuntza-laguntzako langile espezialisten ordutegia. Ebazpenak 9 lanorduko

lanaldiak ahalbidetzen ditu, aste gehienekoa 43,5 ordu direla. 2109/2012 Ebazpena aplikatzearen ondorioak izugarriak izan dira:

– Lanaldi osoak desagertu egin dira ia-ia guztiz, kontrataziorik gehienak lanaldi partzialekoak izanda, nahiz eta kasu askotan eskola-ordu guztiak ematen diren lanean. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek jasotzen duten arretaren kalitateak izugarriko beherakada pairatu du.

– Hezkuntza Laguntzako langile espezialisten ordutegitik desagertu egin dira haiek berezkoak dituzten zenbait eginkizun, zeharkako arreta, material-prestaketa, familientzako informazioa...

– Profesional ezberdinen arteko koordinaziorik ez dago, edo, egonez gero, inprobisazioz egiten da korridoretan, kasurik gehienetan. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek esku-hartze koordinatua, koherentea, prestatua eta beraien-gan zentratutakoa merezi dute.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indargabetu dezan 2109/2012 Ebazpena, eta ordutegia arautzeko horren ordezeko beste ebazpen bat negoziatzen langileen ordezkariekin, kontuan hartuko dituen ordutegia, eskola-egutegia, zeharkako arreta eta hezkuntza-laguntzako langile espezialisten prestakuntza.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egiturazko postuak plantillako lanpostu huts bihurtzen, eta berehala ipin daitezkeen lan publikoaren eskaintzan, behar adinako kopuruan, postu gehieneko kolektiboa fun-

tzionario-lanpostuetan jartzeko eta aldi baterako lanaren tasak ez dezan % 8 gainditu.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da an egin dezan Nafarroako Errepide Sarean inbertitzearen eta sarearen mantentze-lanen aldeko Nafarroako ituna lortzeko.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita an egin dezan Nafarroako Errepide Sarean inbertitzearen eta sarearen mantentze-lanen aldeko Nafarroako ituna lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako errepide sarean inbertitzearen eta hura mantentzearen aldeko Nafarroako Ituna.

Badira zenbait erakunde, bai Nafarroa mailan bai nazio mailan, alderdi politikoei errepide-azpiegituretan inbertitzearen eta horiek finantzatzearan aldeko itun bat eskatzen dietenak. Gure komunitatean itun baten beharrean gaude, gure errepideei hiltzen ez uzteko eta etorkizunari begira horien egoera hobetzeko. Itun horrek alderdi politikoen

eta ukituriko erakunde eta entitateen arteko adostasunetik behar du abiatu.

Ez da alferrekoa gogoraraztea ezen garraio-sektoreak BPG nazionalaren % 8,5 egiten duela eta 1,3 milioi enplegu baino gehiago sortzen dituela Espainian. Nafarroan, sektoreko enpresek 12.000 enplegu baino gehiago sortzen dituzte, eta Nafarroako Ogasunak jasotako zerga-dirusarrera guztien % 7,05eko ekarpena egiten dute. Datu horiek ideia bat ematen digute daukan pisu sozioekonomikoaz, eta ikusarazten digute nolako eragina izanen lukeen neurri horren ondoriozko porrot-segida batek; batik bat, oso erakusgarria den beste datu batekin erlazionatzen badugu, zeina baita gure herrian mugitzen diren orotariko salgaien % 8 errepidez garraiatzen direla.

Errepideen sektoreak azken urteotan pairatu dituen aurrekontu-zailtasunak eta azpiegitureta-finantzaketaren problemak dira sektoreak aurre egin beharreko erronka nagusiak. Jasangarritasunak, baliabide-optimizazioak, ingurumenarekin errespetuz jokatzearan premiak eta ikuspegi politikoak ez ezik teknikoak ere komunikazioa giltzarri den aro bati egokitzeak duen lehentasunak behartu egiten gaituzte elkar harturik gogoeta egitera.

Adituek "ezin eutsizko" esan diote egoera horri, egiazko problema bat dagoela baiteritzote, urteen poderioz eta inbertsio-ezagatik larriagotuta. Errepide-sare ongi planifikatu eta finantzatu batek ahalmena dauka oinarrizko zerbitzuetan eginiko gastu publikoa arrazionalizatzeko. Toki-sareak balioan jarri beharra daukagu, adituen ustez askotariko erabiltzaileei zerbitzu ematen dieten hurbileko bideak baitira.

Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak, zeina Ministroen Kontseiluak 2021eko apirilaren 13an onetsi eta Sánchez presidentek berak aurkeztu baitzuen, Euro-

pako Batzordearen aurrean gobernu sozialistaren deliberoa bere gain hartzen du, gure herriko estatu-autobien sarean bidesariak ezartzeko proposamena aurrera eramatekoa. Horrelaxe ematen du aditzera dokumentu horrek inolako zalantzarik gabe, hitzez hitz honako hau dioenean: “Beharrezkoa da edukiera handiko errepideen sarea erabilitzeagatik ordainketarako sistema bat garatzea, modua emanen duena mantentze-kostuei aurre egiteko eta errepidezko garraioaren kanpo-efektu negatiboak integratzeko, gainerako azpiegiturretan gertatzen den bezala”. Erabaki hori berretsita geratzen da, plan horretako beste puntu batean honako hau esaten denean horretaz: “Edukiera handiko errepideen finantzaketa berrikusiko da, eta dirusarrera-sistema bat ezarriko, Estatuko errepide-sarea zaintzeko beharrezkoak diren funtsak bermatuko dituena”.

Ildo horretan, azpimarratu beharrekoa zaigu baieztapen horiek egiteko erabilitako tresna, ez baikara hitz egiten ari proposamen huts bati buruz, gero batean egitekoak diren azterlan edo eztabaidei loturikoa, baizik eta Bruselan dauden europar agintariei Espainiako Gobernuak bidali dien dokumentu ofizialari buruz, justifikatzeko agintari horiek 70.000 milioi (ez gutxiagorik) eurokoak diren laguntza ez-itzulgarriak ematea hurrengo hiru urteetan zehar. Alegia: konpromiso-borondate argi eta garbia dagoela ulertu behar da, Europarekiko konpromiso bat delako, eta hori ez betez gero dirutza handi baten galera ekar lezake.

Laburbilduz, begi-bistakoa dirudi Nafarroako eta Espainiako gobernuen asmotan dagoela edukiera handiko errepideetatik joatearen truk ordaindu beharreko bidesariak ezartzea. Horrelako deliberrorik ez du orain arte ezein gobernu hartu.

Neurri hori gauzatuz gero, dudarik gabe zuzenean erasanen dio herritar garen aldetik gure herriko lurralde guztiatik libreki lekualdatzeko eta zirkulatzeke modua ematen digun eskubideari.

Nafarroako eta nazioko errepide guztiak konterbatzeak duen garrantzia, egoera eskasean daudenez, bada nahikoa motibazioa arazoa konpontze aldera elkarrekin lan egiteko, errepideen egoerak gizartean duen eraginarekin eta bide

berriak ez garatzearekin batera. Baina guztia ez da bidesari-sistema bat paratzearen kontua. Izan ere, jada eraikita eta zerbitzuan dauden komunikazio-azpiegitura batzuek ari gara; hots, ez dago horiek egiteko kanpo-finantzaketara jo beharrik, autobideekin gertatu izan den bezala, horietan bidesariaren figura bai baitzegoen justifikatuta, azaldutako arrazoiagatik. Gure komunikabideen etorkizuna eta mantentzea aztertu, proiektatu eta aurrekontuetan aintzat hartu behar dugu, eta finantzabide guztiak behar ditugu jorratu.

Navarra Suman betidanik hartu izan dugu bidesari horien aurkako jarrera, batez ere Nafarroako Gobernuak aldebakartasunez jokatzearen ondorio izan direlako, inolako adostasun edo aurretiazko elkarrizketarik gabe, ez garraio-sektorearekin, ez eta, are gutxiago, indar politiko desberdinekin ere, halako moduz non bidesari-proposamena aurrera ateratzeko behar besteko gehiengo besterik ez baita bilatu izan.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamenak aurkezten ditugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, lan egin dezan Nafarroako Errepide Sarean inbertitzearen eta sarearen mantentze-lanen aldeko Nafarroako ituna lortzeko, Foru Komunitateko errepideen egoerari aurre egite aldera, zeresana duten eragile guztiarekin adostuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, ez dezan praktikara eraman, harik eta inbertsioaren eta mantentzearen aldeko itun bat lortu arte, Nafarroako Errepide Sareko errepideetatik zirkulatzeagatik bidesariak kobratzeko bere ideia.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du, ez dezan praktikara eraman Espainiako autobietatik zirkulatzeagatik bidesariak kobratzeko bere proposamena, harik eta Errepide Sare Nazionalerako inbertsio eta mantentze-lanen aldeko itun nazional bat erdietsi arte.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da tokiko eskolatze batzordeen osaera, antolaketa eta eginkizunak alda ditzan.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita tokiko eskolatze batzordeen osaera, antolaketa eta eginkizunak alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko.

40/2011 Foru Dekretuak definitu zituen Tokiko Eskolatze Batzordeen eginkizunak, osaera eta funtzionamendua Nafarroan; haiek xedetzat edukitzea Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloan, Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezkoaren Ondoko Irakaskuntzan ikasten ari diren ikasle guztientzat aukera-berdintasuna ahalbidetu eta bermatzea beren herriko edo eragin-eremuko ikastetxeetan sarbidea eta eskolatzea izan dezaten; batez ere, sozialki behartsuak diren eta gure hezkuntza-sisteman integrazio berantiarra duten kolektiboetakoak direnena.

Funtzionamenduan emandako hamar urte hauetan, Tuteran, Lizarra edo Tafalla bezalako herrietan Tokiko Eskolatze Batzordeak, kasuko udalaren gidaritzapean, izan dira Nafarroako hezkuntza-sisteman sartzen joan diren ikasle guztien integrazioa ahalbidetzeko bultzagune nagusia, familiei berehalako arreta eskainiz eta informazioa emanez gai muntadunez, hala nola hezkuntza-sistemaren ezaugarriez, derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasunaz edo herriko ikaste-

txeez eta haien ezaugarriez, bai eta haiei beren interes eta zaletasunei buruz galdetuz.

Testuinguru horretan, udalak kapaz izan dira babes-, laguntza- eta erabaki-organo batean integratzeko herri bakoitzeko ikastetxe publiko eta itundu guztiak, halatan gune bat eraturik, ikasle behartsuen banaketa orekatuagoa ahalbidetu duena, akordioaren eta batzorde horienganaino iristen ziren kasuetako bakoitzaren analisiaren bitartez, behin eskolatze-aldi ohikoak eta ohiz kanpokoak bukatuta.

Apustu horren emaitza oso positiboa izan da. Udalak dira herri batera lekualdatzen den edozein familiaren sarrera-atea, eta herriko ikastetxeen funtzionamenduarekiko duten kontaktua eta erantzukizuna direla-eta, bitartekari ideial bihurtzen dira herritarrentzako zerbitzu azkar eta efizientea lortzeko seme-alaben eskolatzea bezain gai garrantzitsu batean.

Ikasle eskolatuen datuek eta ikasle behartsuen banaketa herri bakoitzeko ikastetxeetan gero eta orekatuagoa izateak islatzen dute batzorde horien definizio eta funtzionamenduan ederki asmatu dela.

Bada, datorren ikasturtetik aurrera, apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretuan zehazten den bezala, zeinaren bidez arautzen baita ikasle-onarpena Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta itunduetan, Tokiko Eskolatze Batzordeetatik kanpo utzi dira udalak; izan ere, antolaketa eta funtzionamendu aferetan Hezkuntza Departamentuaren esanetara egotera igarotzen dira, eta beren egoitza herriko ikastetxeetako batera lekualdatzen dute. Buru gisa hezkuntza ikuskari bat izanen dute, eta osaera halako moduan aldatuko zaie non ez baitira ordezkaturik egonen kasuan kasuko herriko ikastetxe guztiak.

Erabaki horrek erantzun diezaioke, bakarrik, prozesu guztia Hezkuntza Departamentutik kontrolatu eta bertan zentralizatzeko ahaleginari, eta kalte handia egiten die familiei, ikastetxeetako batzuk hezkuntza-eztabaidagunetik kanpo uzten ditu eta departamentuak berak hartuko dituen erabaki zentralizatueta subjektu pasibo izatera kondentzen ditu.

Ezabatu egiten denez udalek prozesuan zuten presentzia, bertara eramaten zituzten bitartekoak, hezkuntza-ahalbideekin zeukaten kontaktua eta

herriko errealitate sozialaz zeukaten ezagutza, familia askorentzat latza eta konplexua zen prozesu bat humanizatu eta errazten zuen ate bat ixten da.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du alda ditzan Tokiko Eskolatzeko Batzordeei buruz

apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretuan islaturik agertzen ziren osaera, antolaketa eta eginkizunak, eta berriro ere arautu ditzan maiatzaren 9ko 40/2011 Foru Dekretuan agertzen ziren modu berean.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionaleri, haiek Polizia Merituaren Ordenan sartuz eta haienzako bereizgarri espezifiko bat sortuz.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionaleri, haiek Polizia Merituaren Ordenan sartuz eta haienzako bereizgarri espezifiko bat sortuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Horren bidez, eskatzen da aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionaleri, haiek

Polizia Merituaren Ordenan sartuz eta haienzako bereizgarri espezifiko bat sortuz.

Hamarkadetan zehar Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak jardura terroristaren helburu nagusietako bat izan ziren, milaka biktima utzirik eta 506 hildako, 800dik gora eraildakoen artetik. Gizartearen aldeko hamarkadetako jardun sutsu eta latzaren ondotik, Polizia Nazionalaren kolektiboak ez du bidezko aitortzarik jaso Espainiako Gobernuaren aldetik.

Ez da ahaztu behar milaka polizia nazional eta haien familiak Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan igaro izana, bereziki urte "zailenetan" derrigorrezko klandestinitatean, gizartearekin harremanetan egon ezinik, beren atzetik nor zebilen eta beren auzoak edo seme-alaben lagunak nortzuk ziren begiratzuz, egunero beren ibilgailuen azpialdea aztertuz eta askotan "iparreko sindrome" delakoa sortuta.

Halere, gaur egun, ez dute eskura aitortzarik Polizia Merituaren Ordenan bereizgarri zuriarekin sartzearen bidez. Guardia Zibilak, ordea, halakoa du aitortua Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako unitateetan egondako urteengatik.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du, aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionaleri, Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko unitatee-

tan hiru urtez destinatutakoak Polizia Merituaren Ordenan bereizgarri zuriarekin sartuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, egonaldiaren bereizgarri espezifiko bat sor dezan, zainak islatuko baitu Nafarroan edo Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu eman izana, urte horietako zeregina aitortuz.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, bi aitortza horiek irits

daitezen erretiroan eta bigarren jardueran dauden agenteengana.

4. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Estatuko segurtasun indar eta kidegok hamarkada hauetan herritarren segurtasun eta ongizatearen alde egindako lana.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar bezala arautu eta planifika dezan gure erkidegoko garapen berriztagarria.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar bezala arautu eta planifika dezan gure erkidegoko garapen berriztagarria.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresaria-leko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Klima-aldaketa errealitatea da, eta haren ondorioak nabarmenak dira gaur egun. Guztiz beharrezkoa da ekonomia deskarbonizatzea, berotegi-efektuko gasen emisioak zorrotz murriztea eta Nafarroako Foru Komunitatean, European

eta munduan ezarri diren ingurumen-helburuak lortzea:

– Parisko Akordioaren arabera, berotze globala 1,5 °C-tik behera geratu behar da.

– 2030erako, kontsumitutako energia guztiaren ehuneko 50 berriztagarria izanen da.

– 2050erako erabateko deskarbonizazioa lortu nahi da.

Horretarako, aurrekaririk gabeko trantsizioa behar da, irismen handikoa energia-sisteman, garrarioan, industrian, nekazaritzan, gure eguneko bizitzan.

Ezinbestekoa eta premiazkoa da energia-konsumoaren mailak murriztea, autokontsumoa sustatzea eta energia berriztagarrien garapena bultzatzea, zeinek jatorri fosileko energiak ordezkatu beharko dituzten pixkanaka.

Nafarroako Gobernuak energia berriztagarrien proiektuak aurreikusten ditu, instalatutako egungo potentzia laukoizten dutenak. Gaur egun, 35 instalazio ebaluatzen ditu: 23 eolikoak eta 22 eguzki-energiakoak.

45 proiektu Gobernuak ontzat emateko zain daude.

Nafarroa izan zen 2020an energia eoliko gehien instalatu zuen bigarren erkidegoa (Aragoik bakarrik gainditu zuen).

Garapen Ekonomikoko kontseilari ohiaren arabera, proiektu horien guztien potentziak soberan gainditzen ditu 2030erako ezarritako helburuak.

Espainiako estatuan instalazio berriztagarrien proiektuak masiboki eta eskala handian garatzen ari dira, eta Nafarroa ez da salbuespen bat:

– Parke eolikoak Lesakan, Estellerrian (Urbasa-Andia), Lizoain-Arriasgoitin, Esteribarren, Olaiabarren, Ezkabarten, Eguesibarren, Anotzibarren, Erdialdean (Orbaibar, Uxue, Murillo el Fruto, Tafalla, Artaxoa).

– Eguzki-parkeak Erreniegako aldean eta Erriberrin, besteak beste. Eta hori guztia ahaztu gabe Erribera osoan zehar proiektu eolikoaren eta eguzki-energiakoaren oldea izan dela.

Proiektu horietako askok inpaktu larriak eraginen lituzkete finkatu nahi diren ekosistemetan.

Nafarroako 2030erako Energia Planak Nafarroako eremuen sailkapena jasotzen duen mapa bat zehazten du:

- Gai ez diren eremuak.
- Ingurumenaren eta lurraldearen ikuspuntutik mugak dauzkaten eremuak.
- Gainontzeko eremuak.

Proiektu batzuek argi eta garbi ez-gai gisa sailkatutako eremuetan kokatzen dituzte.

2030eko Nafarroako Energia Planak ez du ez jasotzen ez zehazten azpiegitura fotovoltaikoak instalatzeko maparik. Hala ere, 64/2006 Foru Aginduak eguzki-instalazioak naturagune babes-tuetan, babespeko lurzoru urbanizaezinean, abelbideetan, Donejakue Bidean, aztarnategi arkeologikoetan, kultura-balioa duten gainerako lurretan eta egina edo aurreikusita dauden interes orokorreko azpiegiturretan jartzeko debekua zehazten du.

Plan horretan ez dira soilik jasotzen helburuak eta helburuen betetzea; berariaz jasotzen du

biodibertsitatearen babesa, Europar Batasunak egiten duen bezala.

Testuinguru horretan eta une honetan, premiazkoa da eztabaida sozial zabal bat irekitzea inplikaturako estamentu guztien eta herritarren artean, eta gogoetatik, lasaitasunetik eta plangintza demokratikotik abiatuta, Nafarroa, trantsizio energetikoko eredu bat izatearen aldeko apustua egitea, eta ez agertzea energia berriztagarriaren ekoizle huts gisa estatistika-ondorioetarako.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du, behar bezala arautu eta planifikatu dezan gure erkidegoko garapen berriztagarria.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du, eten ditzan, behin-behinean, gaur egun izapidetzen ari diren makro instalazio eoliko zein fotovoltaikoaren eta haiei lotutako azpiegituren administrazio-prozedura guztiak, energia-beharren eta proiektu horiei aurkeztutako alegazio guztien azterketa zehatza egiteko, eta gure ekosistemetan izan daitezkeen ingurumen-inpaktuen eta eraginaren balorazioa ezagutzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du, azpiegitura eolikoak eta orubeak izapidetu, eman eta ezartzeko prozesuan, proiektuen eraginpeko toki-erakundearen autonomia errespetatu dezan, haien titulartasuneko lurretan instalatzea baimentzeko edo ez baimentzeko ahalmena mugatzen edo baliogabetzen duen bitarteko edo tresna juridikorik erabili gabe, lurra ondare-izaerakoak, jabari publikoko eskubidekoak edo herri-jabetzakoak izan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

F saila:
GALDERAK

Galdera, Arizkun herriko seinaleetan legea betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Arizkun herriko seinaleetan legea betetzeari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA


Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak idatziz erantzuteko galdera (10-21/PES-00071)

egin du bere idazkiari atxikitzen dion argazkiko seinaleak –zehazki, bertan ageri diren piktogramek– araudia betetzeari buruz. Horri erantzuteko, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak honako honen berri ematen du:

Galderaren xede den seinalea 2012ko turismo-seinalizazioko proiektuaren parte gisa ipini zen.

Horrelako seinaleak turismo-interesdun herrien sarreran ipini ohi dira, eta behealdean bost piktograma ere jar daitezke, herriak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinak irudikatzen dituztenak. Kasu zehatz honetan, Arizkunen lau piktograma paratu ziren ipini zenean, honekin batera doazen argazkietan eta seinalearen jatorrizko diseinuan ikus daitekeen bezala.





Galderaren xede den argazkiak erakusten duen irudiari erreparatu, ikusten da seinale horretan birmoldatu egin dela piktogrametarako espazioa, zeina hutsik geratu baitzen. Ikus daitekeenez, piktograma ofizial ez den irudi bat txertatu da espazio horretan, turismo-seinalizaziorako piktograma ofizialen artean jasota ez badago ere.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak urtero turismo-seinalizazio berrirako "proiektuak" programatzen ditu, eta jada paratuak daudenak berri eta konpontzeko lanak egiten, haien edozein gorabehera, narriadura edo manipulazio detektatu edo haien berri izan bezain laster. Adibide gisa, azken hiru urteetan (2018-2020) 108.000 euro bideratu dira 20 turismo-baliabideren seinalizazio berrira eta beste 36 baliabideren seinaleak berri eta konpontzera.

Kasu zehatz honetan, behin Arizkongo seinale horren egoeraren berri izanda, piktograma ez-ofiziala ezabatuko da, seinalea jatorrizko egoerara leheneratzeko, eta horrez gain piktograma ofizial bat txertatuko da hutsune horretan, herrian eskainiriko beste zerbitzu bati buruzkoa, halatan etorkizunerako ekiditearren hutsunea berriro manipulatua izatea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 28an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Galdera, Espainiako Itzuliaren balantze ekonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Espainiako Itzuliaren balantze ekonomikoari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera bat egin du (10-21/PES 00079); horren bidez, honako informazio hau

eskatzen dio Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari:

1.) *Zer gastu publiko jarri da guztira (Nafarroako aurrekontu orokorretatik, enpresa publikoetatik eta toki entitateetatik) Espainiako Itzulia egiteko?*

2.) *Entitate publikoek (Nafarroako Gobernuak, enpresa publikoek eta toki entitateek) zenbateko diru-sarrerak izan dituzte guztira?*

3.) *Egin al du Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren balantze ekonomikorik? Baiezkoan, horren kopia bat eskatzen dugu.*

Horri erantzuteko, honako hau jakinarazten dizut:

Lehenbiziko galderari erantzunez, Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik, Unipublic SAU enpre-

sak guztira 60.000 euro jaso zituen; 30.000 euro (BEZa barne), 830002 83200 2262 432100 "Publizitate eta Berri-emate Programa" partidaren kargura, eta 30.000 euro (BEZa barne) A50002 A5110 2279 336100 "Espainiako Itzulia 2020" partidaren kargura, 2020ko gastu-aurrekontutik.

Espainiako Itzuliaren babesletzarako gastu publikoaren itzulera neurtzen da inpaktu mediatiakoaren, Reyno de Navarra turismo-markaren eta lurraldearen ezagutarazpenaren eta, ondorioz, Komunitatera erakarritako balizko turismo eta inbertsioaren bitartez, eta ez, ordea, entitate publikoentzako diru-sarreraren bitartez.

Hirugarren eta azken galderari dagokionez, berez ez da egin Itzuliaren balantze ekonomikorik. Badaukaguna da izenpeturiko kontratuaren esparruan Espainiako Itzuliak eskaintzen duenagatik publikitate-kontraprestazioen balioespenerako txostena, Nafarroako Gobernuaren Komunikazio Zerbitzuak egina. Hona:

AURKEZPEN EKITALDIA: 2020ko Espainiako Itzuliaren ibilbide ofizialaren aurkezpen orokorra. RTVEren kanal baten bidez emanen da, eta Nafarroan zehar igarotzen diren etapak izendatuko dira. Antolatzaileen balioespena 8.264,46 eurokoa da.

IBILBIDE LIBURU DIGITALA: Nafarroako Gobernuak Turismo ordezkaritza baten agurra jasoko da Ibilbide Liburu digitalean. Antolatzaileen balioespena 413,22 eurokoa da.

WEB ORRIA: Espainiako Itzuliaren webgune ofizialean (www.lavuelta.com) Reyno de Navarra Turismoren errotazio-banner bat erakutsiko da, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak egokitzen duen webgunerako esteka batekin. Antolatzaileek 1.239,67 euroko balioespena egin dute.

PUBLIZITATE ESTATIKOA: 20 metro olan paratzea, Turismoren jabetzakoak, haren logoarekin, Iruñeko eta Lodosako etapa-irteeretan eta Lekunberriko helmugan. Antolatzaileen balioespena 1.239,67 eurokoa da.

TELEBISTA BIDEZKO EMANALDIA: Nafarroako lurraldeko eta etapako zuzeneko irudiak eskainiko dira TVEren bitartez, bigarren etaparen azken 60 minutuetan eta hirugarren etapako irteeraren laburpena. Era berean, telebistako esatariei oroitidazki bat eskuratuko zaie, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak prestatua, beren emanaldiak iruzkinez osatu ahal izan ditzaten (antolatzaileen balioespena: 37.190,08 euro).

NAFARROAKO TURISMOAREN PUBLIZITATEAREN BANAKETA: turismo-gida baten presta-

keta eskaintzen da, bai eta publizitate-liburuxka baten banaketa ere, zeinak bigarren eta hirugarren etapek Nafarroan zehar egindako ibilbideko tokirik garrantzitsuenak jasoko baititu. Antolatzaileen balioespena 413,22 eurokoa da.

Horretarako, ekitaldi honen antolatzaileekin 49.586,77 euroko (BEZik gabe) balioa duen babesletza negoziatu du.

ITZULIAREN DATUAK

- 2020ko Vuelta 190 herrialdeetatik jarraitu da; hots, munduko herrialde ia guztietatik. RTVEren ekoizpenari esker, norgehiagoka horren irudiak planetako bazter guztietaraino iritsi dira.

- Gainera, Vueltak 19 herrialdeetako kazetariak izan ditu, bertatik bertara informatzen: Argentina, Belgika, Brasil, Bulgaria, Kanada, Txile, Kolonbia, Danimarka, Ekuador, Frantzia, Alemania, Italia, Japonia, Herbehereak, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Erresuma Batua eta Estatu Batuak.

- La Vuelta 20ren batez besteko audientzia La 1 katean (RTVE) ia 1,5 milioi ikuslekoa izan zen.

- Ikusiena 17. etapa izan zen: Sequeros > La Covatilla-ko gaina, batez beste 2.164.000 ikusle izan zituena, 2,4 milioi ikusleko erpinak ere izanda.

- % 11ko batez besteko share-a La 1rentzat, gehieneko erpina %17,8koa izanda, 12. etapan (La Vuelta 20ko bigarren ikusiena). Une horretan, La Vuelta izan zen telebistako programarik ikusiena.

- Egunean 200 minutu baino gehiagoko batez besteko emanaldia

- 4 etapa oso.

- Etapa batzuk lider izan dira beren orduan. 12. etapa bigarren ikusiena da, 2 milioi ikusle baino gehiago izan baitzituen, eta % 14,5eko share-a. Gainera, asteburuan zehar TVEko programa ikusiena izan zen.

WEBGUNE OFIZIALA

2,3 milioi bisitari bakar

Ikusitako 27,2 milioi orrialde

Bisitari gehieneko herrialdeak: Espainia, Frantzia, Ekuador, Erresuma Batua eta Eslovenia

SARE SOZIALAK

Facebook: 458.000 jarraitzaile (2019an, 373.000 jarraitzaile)

Twitter: 409.000 jarraitzaile (2019an, 376.000 jarraitzaile)

Instagram: 317.500 jarraitzaile (2019an, 266.000 jarraitzaile)

You Tube: 67.000 jarraitzaile (2019an, 67.000 jarraitzaile)

KAZETARI AKREDITATUAK

GUZTIRA: 422 kazetari

- RTVE: 141
- Irratiak: 39
- Telebistak: 102

• Prentsa idatzia/web prentsa: 97

• Argazkilariak: 43

135 HEDABIDE

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 28an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Galdera, Pfizerren txertoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Pfizerren txertoari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00085), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu "Pfizer txertoaren bialen seigarren dosia emateari buruz". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak igortzen dion informazioa:

Noiz hasi zen zehazki Nafarroan Pfizer-en txertoaren bialen seigarren dosia ematen?

Nafarroak txertaketaren hasieratik zeukan material egokia, xiringak eta espazio-galerarik gabeko orratzak. Horri esker, seigarren dosiaren lorpena hasiera-hasieratik izan zen posible, Osasuneko Ministerioak seigarren dosiaren erabilpena onetsi zuenetik (urtarrilaren 25), fabrikatzaileak hasiera batean bost dosi gomendatzen bazituen ere.

Nola jakinarazi zitzaizen txertaketa-taldee?

Haien arduradunen bitartez; garai hartan, Covid Unitatearen bitartez.

Non erregistratzen da bial jakin batean ezin badira 6 dosiak aprobetxatu?

Txertaketako edozein gorabeheratarako –hau barne– prestaturiko gorabehera-orri batzuetan.

Zenbat bialekin gertatu da hori? Zenbat dosi ezin izan dira aprobetxatu eta zergatik, kasu bakoitzean?

Txertaleku bakoitzerako prestatu diren gorabehera-orrietan agertzen zaigu informazio hori. Orriok egunero betetzen dira. Informazio hori berrikusi egiten dute, egunero ere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko txerto-arduradunek eta Txertatze-unitate Teknikoak, eta berrikusten da ea galeraren arrazoiak justifikatuta dagoen eta kasuko orria baliabidearen koordinatzaile den erizaintzako profesionalak betetakoa den.

Informazio hori ez daukagu metaturik.

Gertakari horiek ez dira ohikoak, baina kasu batzuetan gertatu izan dira, disolbagarri gisa erabiltzen den serumean injektatzeko unean likido-galerak izateagatik, injekzio-xiringa gaizki kargatzeagatik edo xiringako likidoa galtzeagatik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

Galdera, Nafarroako Gobernuak emandako abal kobraezinen aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak emandako abal kobraezinen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 2161 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2021eko martxoaren 8koa (10-21/PES-121), Nafarroako Gobernuak eta haren merkataritza-sozietateek 2020ko abenduaren 31n emanak zeuzkaten abalen zenbatekoari eta ezauzgarri nagusiei buruzko txostenaren gainekoa. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dion informazioa, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari kontsultatu ondoren, hark eskatu den informazioaz xehetasun gehiago dituen, eta jasotako informazioaren argitan:

I.- Lehenbizi galdeturikoaz, hots, ea zergatik eman den milioi bat euroko kreditu bat 2021erako, Zailtasunak dauzkaten enpresei laguntzeko, inbertsioa sustatzeko eta ekonomia bultzatzeko Programako abalak ematek hel litezkeen abal kobraezinei aurre egiteko, adierazi behar da

Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren abalen egungo saldo bizia 10 enpresei emaniko abalak osatzen duela (horietako zortzi, zailtasunak dauzkaten enpresentzako laguntzen 2010, 2011 eta 2012ko deialdietakoak, bat Nafarroan ekonomiari bultzada emateko laguntzetakoa, eta bat inbertsiorako abalen deialdikoa). Kasu guztietan, mai-leguaren printzipalaren % 100eko abalak dira; horrenbestez, exekutatu egiten badira, automatikoki bihurtzen dira Administrazioak finantza-entitate exekutatuarekiko duen aurrekontu-betebehar. Horrek esan nahi du aurrekontu-zuzkidura egon behar dela, balizko exekuzioetarako hornidura gisa.

II. Bigarren galderak dio ea programa horretatik indarrean dirauten bederatzia abaletako zein izan daitekeen, Gobernuaren ustez, kobraezin deklaratu eta, horrenbestez, Gobernuak aurre egin beharrekoa. Horri buruz esan behar da ezen, egun bizirik dauden abaletatik, "zailtasunak daukan enpresa" izaera bere garaian izan zuten enpresei emandakoak direla, beren izaeratik beragatik, exekuzio-probabilitate handiena izan dezaketenak. Dena den, abal guztiak dira exekutatzeko modukoak; horregatik, zuzkatasun-printzipioari heldurik, saldo biziaren guztizkoaren kalkulu global bat egin behar da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planeko gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planeko gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planeko gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemari buruz (10-21-PES-00140). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Galdera: Zer jarduketa dauzka aurreikusiak Departamentuak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren otsailaren 16ko 27E/2021 Foru Aginduko 164.515 euro horien barrenean – 2021eko Hondakinen Funtsaren banaketa onetsi zuen Foru Agindua, hain zuzen– gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemarako.

Erantzuna: Martxan da, Nafarroako herri batean, gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemarako proiektu pilotua, Hiri Jasangarri deitua, zeina Zangozan gauzatuko baita aurtengo bigarren seihilekoan, 2020an idatzitako proiektu horretako diseinu-irizpideen txostena aplikatuz.

2. Galdera: 164.515 euro horietako zenbat aurreikusten du gastatzea gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemarekin lotutako jarduketa horietan?

Erantzuna: Aipatu proiektu pilotuaren aurrekontua 140.000 eurokoa da. Halaber hausnarketa-fasean dago proba pilotuan parte hartuko duten herriko saltokientzako balizko pizgarriak ezartzea, eta horren ondorioz litekeena da aipatu kopurua handitzea.

3. Galdera: Departamentuak zer analisi egin du, Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027

Plana onetsi zenetik, estatuan gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemak arautzeko eta ezartzeko balizko ekimenen inplikazioei dagokienez?

Erantzuna: Departamentuak bi esperientzia pilotu egin ditu gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemari dagokionez: bata 2018an, eta bestea 2019an. Horiekin, eta 2021erako aurreikusita dagoenarekin, bete egingen dira Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak ezartzen dituen betekizunak. Txosten bat egin da 2018an eta 2019an eginitako esperientziei buruz, eta, 2021eko esperientzia aztertu ondoren, amai-txosten bat egingen da, hiru esperientzia horien eta estatu-mailan arautzen doazen ekimenen baterako analisia egingen duena; batez ere, hondakinei buruzko oinarritzko lege berriaren onespena kontuan hartuz, zeina urte honen amaierarako aurreikusita baitago, eta hortik eratorriko den ontziratze-araudia ere bai. Horrez gain daude erabilera bakarrekiko plastikoen murriztapenei buruzko Europako araudiak ezartzen dituen betekizunak.

4. Galdera: Departamentuak noizko aurreikusten du egitea Nafarroan gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemen erreferentziatzako esperientziak ezartzearen bideragarritasunaren gaineko azterketa?

Erantzuna: Aurreko galdera zela-eta esan den bezala, 2021eko esperientziaren ondoren amaitxosten oso bat egingen da. Ez dago aurreikusita bideragarritasun-azterlan baterako data zehatzik. Aurtengo proba pilotuaren emaitzen baitan egonen da; are gehiago, litekeena da bestelako irismenteko probak egin beharra egotea.

5. Galdera: Gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistema ezartzearen bideragarritasunaren gaineko azterketa hori gorabehera, Nafarroan une honetan ezar al liteke bilketa-sistema hori, baldin eta toki entitateren batek eta operadore pribatuaren batek bultzatu nahi izanzen balute?

Erantzuna: Aipatu bideragarritasun-azterlana gorabehera, ontziei eta horien hondakinei buruzko egungo araudi indardunarekin, merkatuan etxeko erabilerarako produktu ontziratua ipintzen dituen edozein enpresak zilegi du gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistema bat ezartzeko erabakia hartzea, edo erantzukizun kolektiboko sistema bat ezartzekoa (gaur egun Ecoembes edo Ecovidrio dauden bezalaxe), etxeko erabilerarako produktu

ontziratutako merkatuan jartzeko bere jardueraren ondoriozko ontzietarako.

6. Galdera: Departamentuaren baimena beharko luke?

Erantzuna: Egungo araudia den bezalakoa izanik, gordailu-sistema baten ezarpena egiten litzateke autonomia erkidegoei jakinarazpen bat

igorritik, zeinean enpresa batek ontziratutako produktuak adieraziko diren, baldin eta aukera horren aldeko erabakia hartzen badu, 5. galderari erantzun zaion bezala.

Iruñean, 2021eko apirilaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, Espainiako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomia-ko ministro Nadia Calviñoren hitzaldian NUPeko ikasleek parte hartzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomia-ko ministro Nadia Calviñoren hitzaldian NUPeko ikasleek parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak presaz erantzun diezaion Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean.

Berriki jakin dugu, Ikasleok Martxan ikasleen elkartearen salaketa baten bidez, ezen Espainiako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomia-ko ministro Nadia Calviñok Nafarroara egindako bisita dela-eta, "Ikuspegi ekonomikoak eta berreskuratzeko plana" izeneko hitzaldia antolatu

zuela NUPeko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak.

Fakultateko dekanok berak posta elektronikoz bidez ikasleei jakinarazi zien bezala, hitzaldia irakasleen parte-hartzerik gabe egin zen, eta ekitaldiko parte-hartzea "bereziki" erregistratu zen, gero "kontuan har zezaten ondorio akademikoetarako, adibidez, curriculum-praktikak hautatzeko ordena ezartzeko."

Jarduera hori, izaera politiko nabarmeneko, udaberriko ebaluazioaren amaierako aldiaren egin zen, ikasleentzako azterketak eta lanen entregak pilatzen diren aldi erabakigarrian.

Ikaslearen ordezkariak adierazi duten bezala, hitzaldia ez da ikasketa-planean sartzen eta ez da ezein irakasgaitan sartzen; beraz, parte-hartzea ondorio akademikoetarako baloratzea, are gehiago urriak diren curriculum-praktika aukeratzeko ordenari dagokionez, guztiz okerra eta desegokia iruditzen zaigu unibertsitate publiko batean.

Horrez gain, curriculumeko praktiken egungo sistema berez oso prekarizatuta dago (gehienak ez dira ordaintzen, praktiketako pertsonak langile baten funtzio eta erantzukizun berak bere gain hartzeko joera dago, itundutakoak baino ordu gehiago erabiltzen dira...), eta horri guztiari gehitu behar zaio Fakultateak berak ez diela ikasle guztiei praktikarik eskaintzen, eta, beraz, askok hautatzeko irakasgai gehiago hartu behar dituztela praktikei dagozkien kredituak bete ahal izateko. Beraz egindakoa erabateko burugabekeria akademikoa iruditzen zaigu.

Nafarroako Gobernuko Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak zer balorazio egiten du Espainiako Gobernuko biga-

rrren presidenteorde eta Ekonomiako ministro Nadia Calviñoren hitzaldian izandako parte-hartzea “bereziki” erregistratzeari buruz eta, ondoren hura “ondorio akademikoetarako hartzeari buruz, adibidez, curriculum-praktikak hautatzeko ordena ezartzeko”?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Ceutatik datozen eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren harrerari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Ceutatik datozen eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren harrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozietako Batzordean izapide-tzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozietako kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaion.

Eskubide Sozietako Ministerioak Lurralde arteko Kontseilurako deialdia eginen duela iragarri ondoren, jakin dugu Nafarroak borondatea duela Ceutatik datozen eta bakarrik dauden adingabeen harrerari buruz.

Horren guztiaren aurrean, honako hau jakin nahi dugu:

Nola eginen dio aurre Nafarroak etorrera-prozesuari eta zer balorazio egiten du Eskubide Sozietako Ministerioak ezarritako banaketa-irizpideei buruz?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García